



Durangoko Azokako taupada ez da etengo 55. edizioan

Aurten, abenduaren 4tik 8ra osasun krisiak eragindako murrizketek baldintzatuta ospatuko den Durangoko Azokaren nobedade nagusia [online denda](#) izango da, 2.300 produktu baino gehiagorekin salgai. Aldi berean kultur egitarau zabala izango da, 100 kultur ekitaldik baino gehiagok osatutakoa, batez ere Durangon eta ondoko udalerrietan. 2.300 berrietasun baino gehiagotatik, 852 produktu 2020an sortutakoak izan dira: 636 liburu, 100 musika produktu, 44 aldizkari eta bestelakoak (72), esate baterako ikus-entzunezkoak, jolasak, paperezkoak... Euskal kulturaren denda handi horretan 185 partaidetza izango dira, tartean, disko-etxeak, argitaletxeak, elkar-teak, autoedizioak...

BEKAK SARIAK

* **2020an gazteak itzultzeko laguntzak**, Eusko Jaurlaritzak egin du deialdia, gutxienez azken 12 hilabeteetan EAEn bizi izan ez diren 35 urtetik beherako gazteak kontrata ditzaten sustatzeko, eta baita baldintza hori bete arren, gehienez ere kontratazioaren aurreko hiru hilabeteetan EAEn itzuli direnak eta itzuli zirenetik lanik egin ez dutenak ere. Eskara-epaia: abenduaren 18ra arte. Informazioa: Lanbide: 945 160 600 / 630 305 452 eta retornojuvenil@lanbide.eus

* **Graduatu ondoko 120 beka**, "La Caixa" Fundazioarenak, Europako Goi Mailako Hezkuntza Esparruko (GHEE), Ipar Amerikako edo Asia-Pazifikoko unibertsitateetan edo goi-mailako ikerketa-zentroetan graduondoko ikasketak egiteko. Masterrak edo doktoregoak dira ikasketak. Ikerketa zientifiko eta teknikoko doktoratu aurreko proiektuak ere onartzen dira. Eskabideak aurkezteko epea: 2021eko otsailaren 11 arte. Argibide gehiago: becas@fundacionlacaixa.org eta <https://bit.ly/2Jh1105>

* **Leioako Maitasun Gutunen lehiaketa**, bertako Udalak lau kategoriatan deitua: A) 18 urte arte; B) 19 eta 39 urte bitartean; C) 40 eta 59 urte bitartean; eta D) 60 urtetik aurrera. Kategoriako sariak 250 eta 125€ dira. Lanak aurkezteko epea: abenduaren 22ra arte. Argibide gehiago: Kultur Leioa, Jose Ramón Aketxe plaza 11, Leioa. Tel.: 946 072 570 eta posta elektronikoa: infokultur@leioa.net <https://bit.ly/37f1jJV>

Romoko Gaztelekuaren programazioa

Abendua

Hilak 3 eta 10, ostegunak: TAILERRA: ZABALKETA

Hilak 16, asteazkena, eta 22, asteartea: EKINTZA: GAZTELEKUA APAINDU

Hilak 18, ostirala: EKINTZA: SAREAN OK

Hilak 20, igandea: TXAPELKETA: JUST DANCE

Hilak 26, larunbata: EKINTZA: GABONETAKO FILMA

Algortako Gaztelekuaren programazioa

Abendua

Hilean zehar: TAILERRA: MATÍZ. ANIZTASUNETIK PASEATZEN

Hilak 4, ostirala: ASANBLADA: URTARRILEKO PROGRAMAZIOA

Hilak 5, larunbata: TAILERRA: SAREAN OK. SARE SOZIALEN ERABILERA ONA (YOUTUBER BATEKIN)

Hilak 11, ostirala: TAILERRA: ULERTUZ. GORTASUNAREN INGURUAN HITZ EGITEN

Hilak 12, larunbata: IRTEERA: LAUREN GETXO ZINEMAK

Hilak 18, ostirala: IRTEERA: STROM. URBAN ART

Hilak 19, larunbata: IRTEERA: AIRE ZABALEAN: ARBORETUM BASO BAINUA

Hilak 23, asteazkena: GABONETAKO ESKULANA

Hilak 26, larunbata: 11. URTEURRENA: JOLAS KOOPERATIBOAK

Hilaren 10ean, 19:00etan, Romo Kultur Etxean

Gazteentzako truke- eta prestakuntza-programa europarrei buruzko bilera

17 eta 30 urte bitartean dituzu? Truke edo prestakuntza batean parte hartu nahi al duzu Europako beste herrialdeetako gazteekin? Edo boluntario izan nahi al duzu beste herrialde batean? Europako Batasuneko Erasmus+ (E+) eta Europako Elkartasun Kidegoa (EEK) programak zure nahia betetzera errazago jarri ez ezik, gastu guztiak ere ordainduko dizkizute.

Jakin nahi baduzu nazioarteko mota horretako jardueretan nola hartu dezakezun parte, datorren ostegunean, hilaren 10ean, 19:00etan, gazteentzako topaketa bat egingo da Romo Kultur Etxean. Biler horretan, EEK eta E+ programak Getxo-ko gazteei eskaintzen dizkieten aukeren berri emango da, bai eta Europako ekintza eta esperientzia horietan parte hartzeko modua azaldu ere. Doakoa da topaketa horretan parte hartzea, baina nahitaezkoa da esteka honen bitartez izena ematea: <https://forms.gle/rTtXy2kTHE6opy7A>

Europa Zabaltzen programaren barruan sartzen da jardura hau. Kiribil Sarea eta Aisibizia Elkarteak gazte-erakundeek garatu dute programa hori eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak finantzatu du, gazteek Europako programetan parte hartzeko dituzten aukeren berri emateko eta horiek zabaltzeko.



Hartzaileak

17 eta 30 urte bitarteko gazteei eta gazte-erakundeetako boluntarioei zuzenduta dago topaketa. Parte-hartzaile ohien testigantzen eta metodologia dinamikoen bidez, E+ eta EEK programak Europan eskaintzen dituzten ekintzen berri emango da; horrez gain, modu erraz eta intuitiboan azalduko dira gazteek Europako jardura horietan parte hartzeko eman behar dituzten urratsak. Topaketa horren helburua da gazteek Europako proiektuetan parte hartzea erraztea eta sustatzea, bereziki Europar Batasuneko beste herrialde batean gazteen arteko trukean eta boluntariotzan parte hartu dezaten.

Europako programetan eta

gazteen parte-hartzean adituak diren Kiribil Sareak eta Aisibizia Elkarteak dinamizatuko dute topaketa; haur eta gazteei zuzenduta dauden gizarte- eta hezkuntza-programen bitartez gizarte-eraldaketaren alde eta komunitatea sendotzeko lan egiten duten gazte-erakundeak dira.

GAZTELAGUN: etxebizitza alokatzeko diru-laguntzak

Etxebizitza bat alokatzea pentsatzen ari bazara eta 18 eta 35 urte bitartean badituzu, agian Eusko Jaurlaritzaren GAZTELAGUN Programa interesatuko zaizu gazteen emantzipazioa sustatzeko, zuzeneko laguntzen bidez. Hurrengoak eskatzen dira: Euskal Autonomia Erkidegoan urtebetez etenaldirik gabe egoitza izatea; ezin zaitezke etxebizitzaren jabea izan, horretaz ezin duzula gozatu egiaztatzeko aukera duzunean izan ezik; errentamendu-kontratuaren titularra izatea, banaka edo beste errentari batzuekin batera (etxebizitza partekatuta); etxebizitza alokatzen duen pertsonarekin edo familia-unitatearekin loturirik ez edukitzea (3. mailara arte) eta etxebizitza ohiko egoitza iraunkorra izatea.

Baldintza ekonomikoak

- Banaka eskatuz gero: urteko diru-sarreraren gordinak 18.000€-tik (zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren batura) beherakoak eta 3.000€-tik gorakoak.
 - Familia-unitate modura eskatuz gero: urteko diru-sarreraren gordinak 24.000€-tik (zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren batura) beherakoak eta 3.000€-tik gorakoak.
 - Familia ugaria izanez gero: urteko diru-sarreraren gordinak 28.000€-tik (zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren batura) beherakoak eta 3.000€-tik gorakoak.
- Familia-unitateetan, adin nagusiko kide guztiek baldintzak bete behar dituzte. Informazioa: Alokabide, Bilboko San Vicente 8, behea (sarrera Uri-bitartetik). Tel.: 944 044 708/945 569 020 eta gaztelagun@alokabide.eus

Getxo
bizi ezazu

WANTED

Impulsa tu ideas
Bultzatu zure ideak

18 ETA 30 URTE ARTEKO GAZTEENTZAKO
PARA JÓVENES DE 18 A 30 AÑOS

Zure proiektua azaltzeko hitzordua
eskatu gazteria@getxo.eus
helbidera idatziz

Pide cita para explicamos
tu proyecto escribiendo a
gazterna@getxo.eus